

Dantza ikasketak non?

Edozein ergelek zuzen dezake estatu bat eta futbol entrenatzaile izateko karneta behar da? Piterman-ek –futbol taldeak hondoratzten espezialista den ukrainiar aberatsak– mozkorren eta eroen pareko egiak esaten dituela frogatu zuen esaldi horrekin. Arrazoi osoa zuen. Titulu gabe ezinezkoa gertatzen zaigu lanpostu txukunik –presidentearena salbu– aurkitzea. Gaur egun edozer gauza ikas daiteke eta edozein jakintza arlotan eskura daiteke dioxosozko agiria. Badi-ra salbuespenak ordea. Euskal dantza tradizionalan adibidez, ez daukagu ez ikasketarik ez karnetik.

Azken urteotan gero eta Musika Eskola gehiagotan ari da dantza tradizionala irakasten. Ikasleek izena gogoz ematen dute, baina gero irakasleak aurkitzen lanak dituzte arduradunek. Dantza talderen batean ibilitako edozein dantzari esku zabalik hartzen dute. Udalaren menpeko Musika eta Dantza Eskolek arazoak dituzte kontratatu nahi duten irakaslearen titulazioa justifikatzeko, garaia iristen denean. Dantzako irakasleak ez duela titulurik? Nola izango du ba titulu hori ez bada existitzen!

Bilboko Alondegian Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola ezarriko dutela irakurri dugu prentsan. Antzerki eta dantza munduko hainbat lagunek plataforma bat osatu zuten horrelako eskola bat sortzeko eskaerarekin, eta Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak horren ondorioz, edo horren beharrik gabe, baina eskola sortzea erabaki du.

Antzerki eta dantza ikasketak egin ahal izango dira Arte Eszenikoen eskola horretan. Antzerkiari dagokionez interpretazio zein zuzendaritza espezialiteak irakatsiko dira, eta dantzari dagokionez, klasikoa eta garaikidea ikasketak lerroak eskainiko dira. Baina, dantza tradizionala ikasteko aukerarik izango denik ez da aurreikusitako, edo gutxienez ez da



DANI BLANCO

jakinarazi lehen aurkezpenean. Zer ikasia eta zer irakatsia badago, nor ikasia ere bai, baina Piterman eta presidentea bezala, dantzariak karnetik gabe gaude.

Zenbat lagun dago gaur egun euskal dantza tradizionala ikasten? Ez dut datu zehatzik aurkitu –aurkeztu berri den Kulturaren Euskal Behatokiak lagunduko al digu honetan?–, baina kalkulu batzuk egitera ausartu naiz. Nire inguruko herrietako datuak baditut, eta horien proportzioak beste herrietara zabaldua, kalkulatu dut Euskal Herri osoan 20.000 ikasle inguru egon daitezkeela dantza tradizionala ikasten. Dantza ikasleak bakarrik sartu ditut hor, ez

ditut kontuan hartu dantza taldeetan dagoeneko dantzan –nahiz eta etengabe ikasten– dabilzan dantzari helduak.

20.000 dantzari horiei guztiei irakasten makina bat dantzari, dantza-maisu eta dantza-maistra dabilta. Horien kalkulua egitera ez naiz ausartzen, baina mordoska bat direnik ez daukat zalantzarik. Dantza tradizionala irakasten ari direnek bere intentzio eta borondate onena jartzen dutenik ezin da ukatu, baina ezagutza eta prestakuntza aldetik biluzik gabiltzala iruditzen zait. Ikasleak badi-tugu, baina irakasleak, jarduera horretarako ondo prestatutako irakasleak falta zaizkigu. Tituluak

behar dira, baina horren aurretik –edo batera– formazioa behar dugu. Dantzari bezala hezkuntza kaskarra dugu gehienok, eta dantza tradizionalako irakasle lanetan aritzeko ez ezagutzarik ez prestakuntzarik ez dugu. Tituluak formazio egokia ez du ziurtatzen, baina gutxieneko bat eskaini dezake, orain hori ere ez baitaukagu.

Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren aurkezpenean esan zenez ikasgaien aukera zabaldu egin daiteke eskaeraren arabera. Hona ba eskolaren atek ireki aurretik nire eskaera: dantza tradizionalako ikasketak egiteko aukera eskaini diezagutela. ■



Arte Eszenikoen Goi Mailako

Eskolaren aurkezpenean esan zenez

ikasgaien aukera zabaldu egin daiteke

eskaeraren arabera. Hona ba eskolaren

ateak ireki aurretik nire eskaera: dantza

tradizionalako ikasketak egiteko aukera

eskaini diezagutela

